

ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Azaroa / 282 Zenbakia



BM30 ELKARTEAREN CVII. TOPAKETA

Euskalitek azaroaren 6tik 8ra bitartean antolatutako Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astearen 23. edizioaren barruan, BM30 Topaketaren CVII. edizioan, Gobernantzeren idazkari Juanjo Álvarez europazalea izango da, "Herri-

tartasuna, eskualdeak eta Europa" izeneko saiorekin. Topaketa Bizkaia Aretoan izango da azaroaren 10ean (ostirala), eta eskualdeek eta herritarrek Europa sozialak aurrera egin dezan duten eginkizuna izango da hizpide.

Bilbao Metropoli-30 erakunde lankidea izango da "Aktibatu +" programan, herritarrek ingurumenaren iraunkortasunean parte har dezaten sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak duen ekimenean.

"Aktibatu +" programa

Bilbao Metropoli-30 erakunde lankidea izango da "Aktibatu +" programan, herritarrek ingurumenaren iraunkortasunean parte har dezaten sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak duen ekimenean. Garbiker sozieta- te publikoarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergo- arekin, Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin (CTB), Metro Bilbaorekin, Eroski Taldearekin, "la Caixa" Gizarte Ekintzarekin eta Petronorrekin batera garatu da ekimena.



"Aktibatu +" programak familiek etxeetan eta ikasleek ikastetxeetan aktiboki parte har dezaten sustatzen du, eta, programa bete ondoren, erosketa-hondakinak, ura, energia, mugikortasuna eta antzeko gaiei heltzen die.

Programaren bidez, urriaren 25eko eguneko bileraren jarraipena egin nahi da Bizkaiko Garraio Partzuergoan. Bilbao Metropoli-30 bilera horretan egongo da.

Immigrazioko Tokiko Kontseilua

Azaroaren 6an, Immigrazioko Tokiko Kontseiluaren Batzorde Exekuti-

boa bildu da Bilbao Metropoli-30 elkartearen bulegoetan, elkarteak idazkaritza teknikoko lana egiten baitu kontseiluan.



Bilboko Udalaren Immigrazioaren Kontseilua sortu zen atzeritarren antolatzeko ahalmena sustatzeko, politika publikoak formulatzeko eta elkarrizketa sustatzeko, herritarren partaidetzaz ekintzak garatzeko ekimenean eta proposamenean bultzatzaile gisa.

Datorren azaroaren 22an Immigrazioaren Tokiko Kontseiluaren Osoko Bilkura izango da.

BM30 elkartearen CVII. Topaketa

Euskalitek azaroaren 6tik 18ra bitartean antolatutako Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astearen 23. edizioaren barruan, BM30 Topaketaren CVII. edizioan, Globance-ren idazkari Juanjo Álvarez europazalea izango da, "Herritartasuna, eskualdeak eta Europa" izeneko saioan.

Topaketa Bizkaia Aretoan izango da azaroaren 10ean (ostirala), eta eskualdeek eta herritarrek Europa sozialak aurrera egin dezan duten eginkizuna izango da hizpide.

World Cities

Azaroaren 13tik 17ra bitartean, Lurmutur Hiriko ordezkariak batek bisita egingo du, Europako Batzordearen World Cities programaren barruan, elkarrekin ikasteko eta elkarlanean aritzeko.

World Cities Europar Batasunaren proiektu bat da, eta Europako Batzordearen Eskualdeko eta Hiriko Zuzendaritza Orokorra (DG REGIO) kudeatzen du. Lurraldeko garapenari –batez ere hiri-garapenari–, hiri- eta landa-guneetako elkarketari eta mugalderako lankidetzari buruz Europar Batasunaren eta EBkoak ez diren herrialdeen artean esperientzia eta praktika hobeak trukatzeko Europako Parlamentuak egindako prestatze-ekin-tza batean du sorburua proiektuak.

Lan-bilerak antolatzen ari dira EBn, Australian, Hego Korean, Hego Afrikan, Indonesian eta Vietnamentan. Programak lankidetzako plataforma bat du, informazio eta praktika onen trukea errazteko EBko hirien artean eta EBtik kanpo. Proiektuko

hiriak elkarlanean aritzen dira, beraien arlo tematiko, esperientzia eta helburuen artean dauden antzekotasunen arabera. Hiri guztiak trukerako harremanetan egoteak lankidetzarako bestelako aukerak ematen ditu, eta ideia berrietarako indarra sortzen du.

Bilbao Lurmutur Hiriarekin parekatu da.



Inguralderen 25. urteurrena

Barakaldoko alkate Amaia del Campok gonbit egin dio elkarteari, Udalaren garapen-agentzia den Inguralderen 25. urteurrenera joateko. Ekitaldia azaroaren 14an izango da Barakaldo Antzokian.

Iñigo Urkullu lehendakaria izango da ekitaldiaren buru, eta, harekin batera, Inguraldek egiten duen sustapen ekonomikoko lanarekin lotura duten Bizkaiko gizarteko hainbat ordezkari gongo dira.

Azaroaren 10ean eta 17an, Bilbao Metropoli-30 elkarteak bi bilera izango ditu; lehenena Kudeaketa Aurreratuko Europako Astearen barruan, eta bigarrena, Emakunderen Berdintasun Foroaren barruan.



Barakaldo
CIUDAD·HIRIA

inguralde

Bilboko Udalak hala eskatuta, elkarreak harrera egingo dio azaroaren 16an Bilbao bisitatuko duen Iberoamerikako liderren ordezkari-tza bati.

Iberoamerikako lider publikoen bisita

Bilboko Udalak hala eskatuta, elkarreak harrera egingo dio azaroaren 16an Bilbao bisitatuko duen Iberoamerikako liderren ordezkari-tza bati. Interesa dute hiria eraldatzeko prozesuaren berri jakiteko.

Latinoamerikako instituzio publiko-
etako funtzionarioek eta ordezkari-
ek eratzen dute ordezkari-tza, eta
BBVAko, Carolina Fundazioa eta
CAFeko kideak ere egongo dira,
Carolina Fundazioaren Lidergo
Publikoko Programaren II. edizioa-
ren barruan. Programa hori berezi-
ki zuzenduta dago Iberoamerikako
presidentetzako kabineteetako
agente publikoei eta adituei, eta
toki- eta udal-gobernuetako alkate-
ei eta goi mailako funtzionarioei.
Oro har, etorkizuneko lurraldeko
governantzarari begira lehentasunez-
koak izango diren auziak lantzen
dira, eta erabiltzen den ikuspegiak
agente publikoen eta grinatuen
zeregina eta haien arteko elkarlana
hartzen ditu aintzat.

Bilboko alkate Juan Mari Aburtok
eta Alkatetzako zinegotzi Gotzone
Sagarduik harrera egingo diote
ordezkari-tzari, eta, Bilbori buruzko
ikuspegi orokorra emateaz gain,
hiri-inguruneak berreskuratzeko
ereduak bultzatu dituen hiriko admi-
nistrazio-kudeaketa azaldu dute.

Gero, Bilbao Metropoli-30 elkarteko
zuzendari nagusiak Bilboren eta
ingurune metropolitarraren hiri-eral-
daketa prozesua azalduko die,
bai eta elkarreak duen inplikazioa
eta etorkizunari begira duen ikus-
pegia argitu ere, 2035 Bilbo Metro-
politarreko Hausnarketa Estrategi-
koaren barruan.

BM30 elkarrearen CVIII. topaketa

Datorren azaroaren 17an BM30
elkarrearen CVIII. topaketa izango
da BEAZen, Emakunderen Berdin-
tasunaren Foroaren barruan. Ekital-
dian, "Ekintzailtza genero ikuspe-
gia txertatuta sustatzeko jardunbide
egokiak" aurkeztu, eta eztabaida
egingo da horretaz, Bizkaiko Foru
Aldundiko Ekonomi eta Lurralde
Garapena Sustatzeko Sailaren
Enpresak Sustatzeko zerbitzuburu
Eva Armestoren eskutik. Azterketa-
ren oinarrian, Bizkaiko ekintzailtza
sustatzeko agenteek ANDREkin-
tzailea programaren barruan egin
duten lana dago.

**BasquePRO Elkargoak-en networ-
kinga**

BasquePRO Elkargoak-ek egiten
dituen jardueren barruan, profesio-
nalen elkargoek erabaki dute Ekin-
tzailtzarako Elkargoko Laguntza
Plataforma bat lantzea, Elkargoko
ehunak adierazitako behar bati
erantzuteko.

BasquePRO

ELKARGOAK

Ildo horretan, BasquePRO Elkargoak-eko profesionalen elkargoek galdetegi bat prestatu dute, eta elkar-goetako pertsonen artean banatu dute, beren ibilbideetako une batean edo bestean ekintzailertzan aritu diren edo garapen profesionalaren hautabidetzat jo duten pertsonen profila zein den jakiteko. Galdetegiaren lortutako emaitzen arabera, BasquePRO Elkargoak-ek era partekatuan garatu nahi dituen zenbait jardueraren oinarriak finkatu dira.

Horietako bat da azaroaren 30ean Bizkaiko Jaurreriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren egoitzan izango den networkingeko ekitaldia.

Mendozako ordezkari-tza (Argentina)

Urriaren 6an, Mendozako (Argentina) Udaleko María Marta Ontanilla eta María Angela Gatti arkitektoak izango ditugu bisitan, CIDEUren Hiriko Pentsamendu Estrategikoko Espezializazio Programa egiten ari baitira eta Bilbao Metropolitarrako plan estrategikoarekin interesa azaldu baitute.

Daeguko ordezkari-tzaren bisita (Hego Korea)

Urriaren 18an, Hego Koreako Daegu hiriko ordezkari-tza bat izango da elkar-tearen egoitzan, interesa baitu Bilbok izan duen eraldatze-prozesuaz, eta aurrean izan dituen erronka nagusien, tartean izan diren agenteen eta Bilbao garatze-ko abian jarri diren proiektuen — batez ere ekonomikoen— berri izan nahi baitu.



German Marshall Fund

Urriaren 19an, Evelyn Burnett izango da elkar-tean, lehen eskutik jakin nahi baitu zein diren Bilbao Metropolitarraren estrategiak eta hiria biziberritzeko prozesua.

Cleveland Neighborhood Progress-eko Aukera Ekonomikoen presidenteordea da Evelyn Burnett. Bera arduratzen da integrazio-zerbitzuen programazioa gainbegiratzeaz eta kudeatzeaz, hezkuntzaz, lidergoaz, komunitatearen konpromisoaz, lan-



Bilbao Metropoli-30 Elkarreak Bilbo metropolitarraren eraldaketa-prozesua zuzenean eza-gutu nahi duten ordezkariak eta pertsonen taldeak hartzeko lana egiten jarraitzen du.

indarraren garapenez, eta komunitatean aberastasuna sortzeaz, plancemaking estrategia guztiak eta irabazi asmorik gabeko zerbitzuak integratu, eta Clevelandeko auzoetan merkatu biziak eratzeko. German Marshall Fund instituzioko kidea da Evelyn Burnett, eta gure elkarreak aspalditik ditu harreman eskuak instituzio horrekin.

Weiβwasser-eko ordezkariak

2016ko irailean, Bilboko Udaleko Bilbao Internationalek proposaturik, Bilbao Metropoli-30 elkarreak Bilboko garapenaren eta bilakaeraren aurkezpena egin zuen, 2016ko Udako Akademian, Alemaniako Weiβwasser hirian, "Kualifikazioko eta laneko eredu bidezko hiri-garapen berritzailea" mintegiaren barruan, Bilbao hiria aukeratu baitzuten eraldatzeko prozesuan arrakasta izandako hiri gisa.

Bilera horren ondorioz, eta hiria eraldatzeko prozesuari lotutako agenteak, erakundeak eta hiria bera lehen eskutik ezagutu nahian, elkarreak eskaera jaso du, 2017ko urriaren 26tik 28ra bitartean, Alemaniako Weiβwasser hiriko ordezkariak harrera egiteko. Hirigintzan eta hiriko laneko integrazioan aktiboki esku hartzen duten 10 aktore sozial izan dira.

Horregatik, eta ordezkariaren interesak kontuan izanda, elkarreak agenda bat prestatu du, eta, horri jarraiki, bisitak eta bilerak izan dira erakunde hauetako aktoreekin: Bilbao Ekintza, Bilbao Metropoli-30, Iberdrola dorrea, Euskalduna Jauregia, Guggenheim Bilbao Museoa, Barakaldoko Udala, Inguralde eta San José de Calasanz ikastetxea, besteak beste.

Jeongseon Urban Revitalization Support Center-en bisita (Hego Korea)

Bilbao International-en bidez, Bilbao Metropoli-30 elkarteko zuzendari nagusiak harrera egingo dio azaroaren 8an Hego Koreako Jeongseon Urban Revitalization Support Center-eko ordezkariak bati. Ordezkariak 5 lagunek eratzten dute, eta interesa dute erakundearen beraren, haren sorreraren, erakunde publiko-pribatu gisa egin duen ekarpenaren, eta iraganean hiria eraldatzeko prozesuan egin duen ekarpenaren berri izateko. Horrez gain, erakundearen oraingo jardueraren eta 2035eko Hausnarketa Estrategikoaren berri ere jakin nahi dute.

Era berean, Bilboko Udalaren Hirigintzako Bulego Teknikoko arduradunak harrera egingo dio ordezkariari.

prentsa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30 en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

- Actívate por el medio ambiente. Periódico Bilbao, 01-10-2017.
- Zaragoza, Barcelona, Bilbao y México debaten sobre el futuro de las ciudades. El Periódico de Aragón, 29-09-2017.
- Zaragoza, Barcelona, Bilbao y México debaten sobre el futuro de las ciudades. Finanzas.com, 29-09-2017.
- Pittsburgh se interesa por la transformación de Bilbao. Deia, 20-09-2017.
- Una delegación de Pittsburg visita Bilbao para conocer su regeneración. Deia, 19-09-2017.
- Una delegación de Pittsburgh (EE.UU) llega a Bilbao para conocer el proceso de transformación de la ciudad. Europa Press, 19-09-2017.
- Bilbao compite con Viena y Liubliana por ser la 'mejor ciudad europea'. El Correo, 06-09-2017.
- Bilbao compite con Viena y Liubliana por ser la 'mejor ciudad europea'. El Correo, 06-09-2017.
- Bilbao es una de las finalistas a Mejor Ciudad Europea 2018. Deia, 06-09-2017.
- Bilbao, entre las principales ciudades creativas y culturales del continente. Estrategia Empresarial, 01-09-2017.
- Bizkaia conquista cerca de 3.000 paladares en Escocia. Deia, 07-08-2017.
- La Bizkaia de los '50 Best' amplía en Escocia sus fronteras gastronómicas. El Correo, 04-08-2017.
- Bizkaia promociona su gastronomía en la capital de Escocia. Deia, 04-08-2017.
- Bilbao Metropoli-30 celebró su Asamblea Anual. Estrategia Empresarial, 01-07-2017.
- Cuatro colegios de Bilbao promueven hábitos de ahorro energético entre su alumnado. El Correo, 22-06-2017.
- "El lazo familiar ya existía entre Idaho y Euskadi, ahora queremos hacer negocios". El Correo, 16-06-2017.



www.bm30.es/prensa

URRIAK 4

Schweizer Radio und Fernsehen.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

URRIAK 6

ANDREkintzailea programa: Enpresen
networkinga. BEAZ.

Mendozako ordezkari-tza
(Argentina). Bilbao Metropoli-30
elkarteak.

URRIAK 9

TALENTIA/Trebetasunak. Gizarte
Ekintzako tailerra. Lankidetzarako
ekimena. UD/UPV-EHU/UMU.

URRIAK 18

Daeguko ordezkari-tzaren bisita (Hego
Korea).
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

URRIAK 19/27

ANDREkintzailea programa: Koherentea
da gure estrategia digitala?
Entzunaldi aktiboa online I/II. BEAZ.

URRIAK 19

German Marshall Fund.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

URRIAK 23-24-25

TALENTIA/Eskumenak. Taldeko
coaching-eko 1. saioa (2. ikastaroa).
UD/UPV-EHU/UMU.

URRIAK 24

BBAG lantaldea - Industria turistikoa
bultzatzea. BEAZ.

TALENTIA/Eskumenak. Taldeko
coaching-eko 1. saioa (4. ikastaroa).
UD/UPV-EHU/UMU.

URRIAK 25-28

Weißwasserreko ordezkari-tza
(Alemania).
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

URRIAK 25

TALENTIA/Eskumenak. Komunikazio
eraginkorreko tailerra (3. ikastaroa).
UD.

"Aktibatu +" programaren Jarraipen
Batzordearen bilera. Bizkaiko Garraio
Partzuergoa.

URRIAK 27

ANDREkintzailea programa: Koherentea
al da gure estrategia digitala? Online
entzunaldi aktiboa II. BEAZ.

URRIAK 30

Uniporten Zuzendaritza Batzordea.
Uniporti.

URRIAK 31

132. Zuzendaritza Batzordea.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

AZAROAK 2

ANDREkintzailea programa: Koherentea
da gure estrategia digitala?
Entzunaldi aktiboa online III. BEAZ.

AZAROAK 6

Immigrazioko Tokiko Kontseiluaren
Batzorde Exekutiboa. Bilbao
Metropoli-30 elkarteak.

AZAROAK 8

Daeguko ordezkari-tzaren bisita (Hego
Korea).
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

AZAROAK 9

ANDREkintzailea programa: ETE-
entzako komunikabide sozialak I.
BEAZ.

AZAROAK 10

CVIII. Bilbao Metropoli-30 Topaketak.
Bizkaia Aretoa.

AZAROAK 13-17

World Cities.
Bilbao.

AZAROAK 14

Instituzioen ekitaldia Inguralderen 25.
urteurrena dela-eta. Barakaldo
Antzokia.

AZAROAK 17

CVIII. Bilbao Metropoli-30 Topaketak.
Bizkaia Aretoa.

AZAROAK 16

ANDREkintzailea programa: ETE-
entzako komunikabide sozialak II.
BEAZ.

Iberoamerikako lider publikoen
bisita. Bilbao Turismo.

AZAROAK 17

CVIII Encuentro BM30 Topaketak.
Bizkaia Aretoa.

AZAROAK 22

Immigrazioko Tokiko Kontseiluaren
Osoko Bilkura. Bilbao Metropoli-30
elkarteak.

AZAROAK 23

ANDREkintzailea programa: Nola
bidali marketineko e-posta spamik
egin gabe.
BEAZ.

AZAROAK 28/30/14

ANDREkintzailea programa: B2B
marketina / Eraiki zure harreman
profesionalen sarea Internetez/Social
Selling. BEAZ.

AZAROAK 30

BasquePRO Elkargoak-en networkinga.
Bizkaia Jaurreriko Abokatuen Bazkun
Ohoretsua.

ABENDUAK 1

BBAG lantaldea - Industria turistikoa
bultzatzea.
BEAZ.

ABENDUAK 12

ANDREkintzailea programa: Zer egin
zure enpresa haz dadin.
BEAZ.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano

Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkarteak

Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.

Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424

Email: info@bm30.es - URL: <http://www.bm30.es>

Facebook: <http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30> Twitter: @BilbaoMetropoli

EUSKO JAURLARITZA 1992KO EKAINAREN 9AN
HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA